

ASTEAZKENA

2021/06/16

9. urtea, 1.436. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Etxeko banderaren lehiarekin hasiko du liga Tolosaldeak

Tolosaldeko II. Banderarekin emango zaio ETE ligari hasiera larunbatean; Tolosaldea traineruak iazko hasiera errepikatzea du helburu; igandean izango dute bigarren jardunaldia //7

Uztaila bukaerara arte askotariko kultur ekitaldiak antolatu ditu Tolosako Udalak

'Kultura Plazara' ekimenari jarraipena emanez, kultur arloan Tolosa «erreferente» izatea nahi du udalak; saio gehienak zezen plazan izango dira, eta baita herriko hainbat txokotan ere //2

Tolosaldeko turismo ereduaren inguruan hausnarketa

Tolosaldea Garatzen garapen agentziak eskualdearen marka berri du, eta marketin plana abiarazi du eragileekin batera //4

Zuloaga Txiki, babes bila datozen pertsonen aterpe

Duela bi urte hasi zen arreta eta laguntza eskaintzen nazioarteko babesaren eskatzaile direnei; 110 pertsonak erabili dute zentroa //3



JON MIRANDA

«Zoritxarrez, sormen prozesuari ez zaio garrantzia ematen»

MAITANE PEREZ ARGOTE IDAZLE ETA AKTOREA

Udalbiltzak bultzatutako 'Geuretik Sortuak' bekari esker, hiru asteko egonaldia egingo du Amasa-Villabonan; irailean narrazio lan bat egingo du, eta hurrengo urtean, gainerako beka-dunek sortutakoarekin batera, liburuan jasoko dute //5



Usabal Ind., 12 · 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Leidorreko zinema saioetarako bonu kanpaina berria, martxan

Hiru motatako bonuak erosteko aukera dute tolosarrek; abenduaren 31 baino lehen erabili beharko dira

Josu Artutxa Dorronsoro

Jada martxan da Leidor aretoan eskaintzen diren zinema saioetarako bonuen kanpaina. Orain arte bezala, 10, 20 eta 30 saioetarako bonuak jarri dituzte salgai, abenduaren 31ra bitarte erabili ahal izango dira, eta erabiltzaile bakoitzak erabakitzen du zein kantitateko bonua erosi.

Bonuen salerosketarako sistema errazteko helburuarekin, web-orri berri bat sortu dute Kutxabanken sarreraren salmenten webgunean. Leidorreko leihatilan bezala, bonuez gain, sarrerak ere eros daitezke bertan; bonuak sarrerengatik trukatzeko aukera ere eskaintzen da, leihatilatik igaro beharrik gabe. Zinema saioetarako ez ezik, Leidorren eskaintzen diren beste ikuskizunetarako sarrerak ere eskuratu daitezke.

Iazko udazkenean jarri zuten martxan bonuak erosteko sistema berria. Ordutik egon diren gorabeherak tarteko, eta bonuen iraungitze dataz jabetu gabeko hainbat herritar dagoela jakinik, salbuespen modura, apirilean eta maiatzan bonuak erosi eta agortu ez dituzten herritarrei, erabiltzeke dituzten sarrerengatik gonbidapenak ematea erabaki du udalak, kanpainak iraun bitartean erabili ditzaten; Leidorreko leihatilan jaso beharko dira gonbidapen horiek.

Bestalde, Tolosako Udalaren arte eszeniko eta musika egitarauan biltzen diren ikuskizunetarako, oraingo Eszena Bonuen iraungitze data hilak 30a izango dela gogorarazi dute; hortik aurrera, beraz, ez dute baliorik izango. Irailean jarriko dira berri salgai urte amaierara arte balioko duten Eszena Bonuak.



Izarne Iglesias kultura zinegotzia, Olatz Peon alkatea eta Julen Caminos (Bidean Produksioak), aurkezpenean. J. ARTUTXA

Udan ere kulturaz gozatzeko aukera zabala egongo da

Hilaren 19tik uztailaren 31ra bitarte, arte eszeniko ezberdinetako artisten emanaldiak izango dira herriko guneezberdinetan; sarrerak aldeztu aurretik lortu behar dira 'Kulturaplazara.eus'-en.

J. Artutxa Dorronsoro

Beste urte batez, Kultura Plazara ekimena antolatu du Tolosako Udalak. «Herritarrei kulturaz modu seguruan gozatzeko jarraitzeko aukera eskaintzeko helburua du jaialdi honek», adierazi du Olatz Peon alkatea. Iaz, egoerak hala baldintzatuta, udako eskaintza berezia antolatu zuen udalak, eta auzoetako jaiak ordezkatzeko sortu zen Kultura Plazara ekimena; zezen plazan hainbat kontzertu antolatu zituzten asteburu batean.

Aurten, iaz martxan jarritako proiektuari segida eman nahi diote, baina asteburu bakarrarekin nahikoa ez, eta hilabete eta erdiz luzatu dute egitaraua. «Kulturaren aldeko apustuan, iaz sortutako ekimena indartu eta aberastu nahi izan dugu aurtengoan, jaialdi formatura ekarri eta denboran luzatuta; artista eta talde ezagunak izango ditugu Tolosan, baita tokikoak ere, kulturaz, kalean eta aire librean gozatzeko aukera izan dezagun, Tolosa kultur arloan erre-

fente izatea nahi baitugu», esan du alkateak.

EUSKAL KULTURARI IKUSGARITASUNA

Oraingoan, ekaina eta uztailerako saioak aurkeztu badituzte ere, udal ordezkariak aurkezpenean adierazi dutenez, jada antolatuta dute urrira bitarterako egitaraua. Aurrerago, gainera, Kalakan, Belako, Izaro edota Willis Drummond taldeen kontzertuez gozatzeko aukera izango da. «Pixkana gure herria normaltasuna eta ohiko jarduera berreskuratzen ari da, eta horretarako, udalaren babesa eta bultzada ezinbestekoak dira. Horregatik, urte hasieratik daramagu Kultura Plazara egitasmoaren baitan lanean, eta jaialdi hau gauzatzeko beharrezkoak izan diren baliabide guztiak jarri ditugu», nabarmendu du Peonek.

Alkateak esan duenez, «kultura kalera ateratzea, eta batez ere, euskal kulturari ikusgarritasuna ematea» dira jaialdiaren helburu nagusiak. «Egitarau indartsua antolatu dugu, iruditeria sortu

da, baita webgunea eta sare sozialak ere. Indar handiko kultura jaialdia izateko helburuarekin sortu eta garatu da egitasmoa, eta horrela izan dadin, Bidean produkzioak enpresaren laguntza izan dugu. Ziur gaude arrakasta izugarria izango duela».

Ondorioz, jaialdiari, parte hartuko duten artistei nahiz kontzertu berriei buruzko informazio guztia eskuragarri dago *Kulturaplazara.eus* webgunean. Bertan eskuratu daitezke sarrerak ere. «Bi urte oso zail izaten ari dira, eta eskertzekoa eta balioan jartzekoa da udalak emandako babesa eta egindako lana», adierazi du Julen Caminos Bidean Produksioak enpresako kideak. «Gozatzeko moduko jaialdia izango da, zalantzarik gabe», gaineratu du.

Arte eszeniko ezberdineko egitaraua prestatu dute, adin-tarte eta era guztietako zaletasunentzako modukoa. Ikuskizun gehienak zezen plazan izango badira ere, landa auzoetan eta herriko beste plazetan ere gozatu ahal izango da kulturaz.

KULTURA PLAZARA

Ekainak 19, larunbata

19:30. Frontona antzezlan, Herriki-de ikastetxeko pilotalekuan (San Frantzisko pasealekua).

Ekainak 24, osteguna

18:00. La Baldufa taldearen *Safari* haur emanaldia, Zumardihandian.

19:00. Nikotina eta Skabidean taldearen kontzertuak, zezen plazan.

Ekainak 25, ostirala

19:00. Zuhaitz Gurrutxagaren *Futbolistok* bakarriketa saioa, Leidor aretoan.

19:00. Anne Etchegoyenen kontzertua, zezen plazan.

Ekainak 26, larunbata

9:30-20:00. Suak harrotuz ibilbide antzertua, Urkizu auzoan.

12:00. Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua, Plaza Zaharrean.

19:00. ETS (En Tol Sarmiento) taldearen kontzertua, zezen plazan.

Ekainak 27, igandea

12:00. Bertso jaialdia Berdura plazan, Maialen Lujanbio, Amets Arza-Illus, Oihana Iguaran eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin.

18:00. Kiki, Koko eta Moko pailazoaren *Natura gara* saioa, Zerkausiko terrazan.

19:00. Puro Relajo taldearen kontzertua, zezen plazan.

Uztailak 3, larunbata

12:00. Tolosako Udal Musika Bandaren kontzertua, Amartz auzoan.

17:00. *Magiklown* 2haur emanaldia, Bedaio auzoan.

19:00. Alaitz Artolaren kontzertua, Bedaio auzoan.

Uztailak 10, larunbata

19:00. Gozategi taldearen kontzertua, zezen plazan.

Uztailak 11, igandea

12:00. Combo taldearen kontzertua, Larramendi auzoan.

Uztailak 16, ostirala

19:00. Zetak taldearen kontzertua, zezen plazan.

Uztailak 23, 24, 25 eta 26

22:00. Zinemaren inguruko saioak zezen plazan: bang bang saioa (*Por un puñado de dólares*), Markak komiki kontzertua, soinu banden kontzertua eta *Otra ronda* pelikula.

Uztailak 30, ostirala

19:00. Sonakay taldearen kontzertua, zezen plazan.

Uztailak 31, larunbata

19:00. Olatz Salvador + Idoia, zezen plazan.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburra.eus-en

20 pertsona bizi dira gaur egun harreran, Zuloaga Txikin

CEAR-Euskadik kudeatzen du aterpetxea eta erakundearen arteko harremana ezinbestekoa dela uste du; muturreko egoera bizi dute bertan aterpe hartzen dutenek

Irati Saizar Artola

Zuloaga Txiki aterpetxeak 2019ko abuztu amaieran ireki zituen ateak, 35 pertsonari arreta emateko gaitasunarekin. Gaur egun, 20 pertsona bizi dira harreran, nazioarteko babesaren inguruko eskaerari buruzko ebazpena emateko zain. Aterpetxeak arreta, orientazioa eta laguntza eskaintzen dizkie bestelako baliabiderik ez duten nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradun diren pertsona eta familiei eta aberrigabeei. Hassana Aalia, esaterako, asiloko eskatzaile gisa iritsi zen, eta gaur egun, bertan egiten du lan, beste pertsona batzuei laguntzen.

Bi eraikin ditu aterpetxeak eta zabaldu zenetik, guztira 22 herrialdeetako 110 pertsonak erabili dute zentroa. CEAR-Euskadik kudeatzen du, eta aurten, hain justu 25 urte bete ditu elkarteak. Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua bertan izan zen atzo eta zorionak eman zizkien «25 urteotan izan duen inplikazioagatik» eta «urteotan zuen laguntza jaso duten milaka pertsonentzat itxaropen izpi» bilakatzea-gatik. Erakundearen arteko



Hainbat erakundetako arduradunen bisita jaso zuten atzo, Zuloaga Txikin. I.S.A.

elkarlanaren balioa ere nabarmendu zuen, izan ere, aterpetxea Tolosako Udalaren lagapena da. Olatz Peon alkateak esan zuen urteak daramatzatela CEAR-Euskadik errefuxiatuak hartzeko egiten duen lana bultzatzen eta laguntzen, eta horretarako, tutoretzapeko pisuak edo Zuloaga Txiki zentroa proiektuaren esku jartzen. Tolosan dauden migratzaileek udalerriri egiten dioten ekarpenaz aritu zen ere: «Udalerrri anitza gara, eta aberasgarria da kultura eta jatorri desberdineko jendea izatea».

Patricia Barcena CEAR-Euskadiko zuzendariak esan zuen bere aldetik, Zuloaga Txiki harrera ereduak «tresna malgua» dela, eta aukera eman diela orain arte 112 pertsonari atseden hartzeko, «jasandako indarkeriaren ondorio indarrak hartzeko eta haien gaitasun eta jakintzak eskaintzeko herri solidario eta konprometitu honi».

ERREPORTAJEA

TOLOSALDEKO ATARIA-k errefuxiatuen gaia landu du eta ekainaren 18ko astekarian argitaratuko du.

Naturaren doinuak Oroith Txiki eta Oroith Gazteren eskutik

Iritzia

Shrabani Aranzabe

Musikaria eta Musikeneko ikaslea

Neuk idatziriko narratizio batetik aterata den istorio bat da *Naturaren Doinuak*. Josu Elberdin konposatzaile eta zuzendariaren *Álami* lana erabili dut munduan barrena ibiltzeko. Egun gertatzen diren zorion eta ezbeharren inguruan kantatu genuen larunbatean, guztia naturak bideratua.

Horretarako, Mikel Urdangarín musikagilearen *Non geratzen den denbora* kantarekin hasi ginen. Denbora asko baitzen azkeneko jende aurrean abestu ge-

nuenetik, eta lurraldeetan denborak aurrera egin du gure baitan.

Honetarako lekurik aproposena izan zen Ur Mara museoa, artea natura eta gizakia lotzen dituen elkarlanerako espazioa. Basoan eta naturaren erdian kokaturik baitago.

Istorioa Xabier Artolak kontatuko zigun narrazio modura, pianoan Amaia Irastorza izan genuen eta perkusioan, Bruno Miguez. Biak Musikeneko ikaskideak. Mezu asko igorri nahi izan genituen kontzertuan zehar, baina gaur egungo egoera kontuan izanik, honakoarekin amaitu nahiko nuke: *Egunsenti argien dantza. Argiaren mintzoa. Argi berrien mintzoa ororetan gailenduko da*.



GUTUNA

Gutxiago bidaiatu, hobeto bidaiatzeko

Aldaketa garaian gaude, hurrengo urteetan bidaiatu ahal izateko oinarriak ezartzen ari dira orain. Irailaren 11ren ondoren gertatu zen bezala, koronabirusak ere aldaketa asko ekarriko ditu bidaiatzeko orduan. Horretarako, bidaiari gisa egokitzea ezinbestekoa dugu.

COVID-19ak gauza txar asko ekarri dizkigu, baina gauza batzuk birplanteatzeko aukera ere eman digu. Lehengo batean sare

sozialetan irakurri nuen bidaien etorkizuna orri zuri baten modukoa dela, eta ezin da hobeto definitu. Aukera paregabea dugu orri zuri hori nola bete nahi dugun pentsatzeko eta irtenbidea turismo jasangarria izan daiteke.

Gehiegizko turismoak edo masa turismoak herrietako kultura eta natura izugarri kaltetzen ditu. Ukaezina da turismoak garapen ekonomikoa dakarrela, baina *a priori* ikusezinak diruditen baina hor dauden beste faktore batzuk ere badakartza. Kontrolik ez dagoenean eta turismoaren sektoreak garapen

iraunkorreko planik ez duenean, zein dira ondorioak sufritzen dituztenak? Ekosistema ahulenak, munduko kulturak eta tokiko bizitzak.

Pandemiak gure bizitzak eten ditu, turismoa geldiarazi du. Une egokia da bidaiatzeko modua aldatu eta turista ardurasuak izaten hasteko. Izan ere, konponbidearen parte ez bazara, arazoaren parte zara.

Esaldia aztertzen badugu, hunkitu egiten du, uste baitut inork ez duela arazoaren zati izan nahi. Baina prest al gaude konponbidearen zati izateko?

Egin behar dena egiteko? Prest al gaude gure ohiturak zalantzan jartzeko, gauzak egiteko modu berriak ikasteko, barrura begiratzeko eta hobetu genezakeen hori aztertzeko?

Datorren turismoa jasangarria izango da edo ez da izango, eta oso baieztapen sendoa da, baina oso errealista. Ezin dugu espero turismoa orain arte zegoen moduan jasangarria denik. Ezinbestekoa da gutxiago bidaiatzea hobeto bidaiatzeko.

Datuei begiratu besterik ez dago, 2019an 1.500 milioi bidaiari izan ziren; eta jakina, kopuru

hori ezin da modu iraunkorrean mantendu.

Bidaiatzera goazenean, gure ekintza guztiek eragina dutela pentsatu behar dugu, eta, bidaiatzen jarraitu nahi badugu, inpaktu hori minimizatu egin behar dugu. Hainbeste hegazkin hartzeak edota bateko eta besteko jardueretan parte hartzeak zer ondorio izan ditzakeen hartu behar dugu kontuan. Hasieran esan bezala, geldialdi honek bidaiatzeko norabide zuzenera, norabide iraunkorrera, bideratzeko balio behar digu.

Alaia Gorostidi Tolosa



Turismoari begira ere, garrantzia ematen zaio Tolosako asteroko azokari. E. M.

Hausnarketa kolektiboa, turismo ereduari buruz

Tolosaldea Garatzen garapen agentziak Tolosaldearen marka eta webgune turistikoak berritu asmo ditu; horretarako, marketin plana garatuko du

Erredakzioa

Tolosaldearen erakusleihen diren marka eta webgune turistikoak -*Tolosaldea.eus*- berritu asmo ditu Tolosaldea Garatzeneko Turismo Sailak, eta horretarako, etorkizunera begirako oinarriak finkatuta utzi asmoz, marketin plana garatuko du lehenengo.

Planaren lehen urratsa eskualdeko turismo ereduari buruzko hausnarketa kolektibo edo par-

tekatu bat egitea izango dela zehaztu dute garapen agentziatik. Hiru taldetan banatuta egingo dute diagnosi hori eta bakoitzarentzat galdetegi bana sortu dute: turismo sektorea, batetik; erakunde eta eragile publiko eta pribatuak, bestetik; eta, hirugarrenik, herritarrek.

Ondorengo gaietan jarriko dute azpimarra hausnarketa egiterakoan: Zeintzuk dira Tolosaldearen indarguneak? Zer hobetu beharko litzateke? Zer da erakar-

garriena? Zein balio erantsi du eskualdeak gainerako jomugekin alderatuta? Horrela, baliabide turistiko nagusiak identifikatu eta balioetsi nahi dituzte, turistak hobeto ezagutu eta sustapenerako kanal eta mezu egokienak identifikatzearekin batera.

Tolosaldea Garatzenek azaldu duenez, «sektorea da turistekin harreman zuzenena duena: museoak, lotokiak, jatetxeak, ekoizleak, interesguneak... eta gertuko errealitate hori jasotzea ezinbestekoa da planean». Turismo alorrean lan egiten duten erakunde eta eragile publiko eta pribatuak ikuspuntuak ere bildu nahi dituzte, hala nola, udal edo elkarteak. Horretarako, aurrez aurreko elkarrizketak, bideo-deiak, elkarrizketa telefonikoak edota *online* galdetegiak egingo dira, Gura Marketin enpresako teknikariekkin batera.

HERRITARREN IKUSPUNTUA

Herritarrei ere zabaldu nahi izan zaie parte hartzeko aukera, «ikuspuntu anitzagoak jaso nahi baitira». Kasu horretan, parte hartu nahi duen orok, bi modu izango ditu aukeran: Alde bate-tik, *online*, Tolosaldea Garatzenen web orrialdean argitaratutako galdetegi bat betez. Eta, bestalde, *online* egin ordez, nahiago dutenek, Tolosaldea Tour turismo bulegoan (Andre Maria plaza, 1. Tolosa) izango dute galdetegi paperean betetzeko aukera. Asteartetik ostiralera 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara eta igandetan 10:00etatik 14:00etara jo ahalko da bulegora.

Parte hartze prozesua uztaillaren 9ra arte luzatuko da, eta parte hartzen duten herritarrek Tolosaldea Tour turismo bulegoak eskaintzen dituen bisita gidatuetako bat -Tolosako Alde Zaharra, Andre Maria eliza edo Azoka-doan egin ahalko dute.



Amantegi eta Iturriza Elosegi parkean jarri dituzten paneletako batean. J. A.

Bertako ondare naturalaren berri izateko

Tolosako Udalak ibilbide botanikoa egin du Elosegi parkeko bioaniztasuna balioan jarritz; zuhaitz espezie esanguratsuenen informazioa eskuragarri jarri dute

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

XIX. mendean, Pierre Ducasse lorazainak diseinatu zuen Elosegi Parkeko lorategia. Tolosako Udalak, berriz, 2020an zabaldu zuen parkea, herritarrentzako aisialdirako gune gisa. Urte askotan sarrera itxita egon denez, herritarrek ez dute bertako ondare naturala gehiegi ezagutzen. Hori dela eta, ibilbide botaniko baten bidez, udalak balioan jarri nahi izan du parkeko bioaniztasuna, herritarrek bertako ondare botaniko eta ekologikoa sakonago ezagutzeko aukera izan dezaten.

Patxi Amantegi Ingurumen saileko zinegotziak nabarmendu du Eskola Agenda 21 proiektuan sortu zela ekimena. «Tolosako biodibertsitatea lantzeko herritarrek proposatutako ekintza bat izan zen, eta ingurua eta baliabideak aztertu ondoren, aurtun martxan jartzea erabaki dugu».

Ibilbidean zehar hamabi informazio-puntu ezarri dituzte, ha-

maika zuhaitz eta hildako enbor baten inguruan. «Lorategiko zuhaitz espezie deigarri edo esanguratsuenak aukeratu ditugu eta paneletan espezie horien izen arrunta eta izen zientifikoa, eta kokapena agertzen dira, baita deskonposatzen ari diren enborrenak ere».

Panel txiki bakoitzak QR kode bat du, ibilbide botanikoko puntu horri buruzko informazio, argazki eta xehetasunetara bideratuz. «Bertako zuhaitz eta landare esanguratsuenen informazioa modu eroso eta erraz batean eskuratzeko aukera eskaintzen da, eta informazio hori, gainera, idatzizko formatuan kontsultatu ahal izateaz gain, audio modura ere entzun daiteke», esan du Margi Iturriza, ibilbide botanikoa garatu duen Galemys enpresako hezitzaileak. Amantegik gaineratu duenez, udalak azken urteetan hainbat ekimen eraman ditu aurrera: «Bioaniztasuna balioan jarri eta herritarrek bertako naturarekin harremana indartzeko».

Teknologia aurreratuena garatzen dugu gure bezeroak lehiakorragoak izan daitezen

Zitu
zure softwarea

943 215 270 / zitu.net / info@zitu.net

ZOZKETA

TABLETAREN EZAUGARRIAK:
Lenovo M10 HD, 10", Android 10 sistema operatiboa, 64GB-eko memoria



Zozketan parte hartzeko epea ekainaren 20a, 943 65 56 95 edo www.ataria.eus-en.



J.M.

«Beka honekin sormen lan bat egin ahal izatea pribilegio bat da»

MAITANE PEREZ ARGOTE IDAZLE ETA AKTOREA

Udalbiltzak 26 sortzaile hautatu ditu beste hainbeste udalerritan euren sormen lana garatu dezaten; 'Geuretik Sortuak' bekarekin hiru aste egingo ditu Perezek Villabonan

Jon Miranda Amasa-Villabona

Hiru asteko egonaldia egingo du Maitane Perez Argotek (Iruña, 1985) Amasa-Villabonan, orain bi aste eta abuztuan beste bat. Begiak zabal-zabalik inguruan gertatzen den guztiari adi begiratzen dio.

Zer moduzko harrera egin ditzate Amasa-Villabonan?

Oso harrera polita izan da. Udale-

txeko arduradunek oso ongi hartu naute. Momentuz etxean bezala sentitzen naiz. Zonaldea eza gutzen nuen, Tolosaldeko zenbait tokitan aritu izan bainaiz antzerki lanak eskaintzen, baina sekula egon gabea nintzen Amasa-Villabonan. Aurkikuntza bat izan da niretzat.

Zer nolako proposamena luzatu zenuen 'Geuretik Sortuak' bekarako?

Nahikoa proiektu irekia aurkeztu nuen, momentu horretan, ez nekielako zein herri egokituko zitzaidan. Zenbait ardatz edo gai planteatu nituen abiapuntu gisa, gero herrian topatutakoarekin idaztea baita helburua. Ardatz horietako batzuk dira: jatorria, pertenezkoa behar hori, herrien arteko loturak eta transmisioa, hizkuntza, esamoldeak, hizkera eta musika ere aipatu nuen proposamenean, tokian tokiko bertso eta koplak biltzea interesatzen zitzaidan.

Antzerkigile eta aktore gisa egin duzu ibilbidea. Idaztearena nondik dator?

Formakuntzarik ez dut, baina txikitatik asko idatzi izan dut etxean. Etxekoek bultzatu naute horretara. Gurasoek liburuak asko maite dituzte eta anaia eta biok hori jaso

dugu. Heldutan literatur lehiaketara aurkeztu izan naiz eta antzerki testuak ere idatzi izan ditut. **Sorkuntza prozesuaren emaitza narrazio bat izango da. Zer aurreratu dezakezu lanaz?**

Ezer gutxi. Idazketa lanak 20 eta 40 orri bitarteko luzera izango duela, hori da aurreratu daitekeena. Gainerako guztia librea da, baina noski, egonaldia egiten ari garen herriak nolabait agertu behar du obra horretan. Ez du zertan izen eta guzti agertu behar, baina presente egon behar du.

Egonaldia herriaren izaera jasotzeko baliatuko duzu?

Bai, hemen nago nagusiki hausnartzeko. Hiru aste hauek horretan emango ditut eta paseatuz lekuak eta txokoak deskubrituko ditut. Horrekin batera, niretzat inportantea, jendearekin ego-

tea da. Dagoeneko hasi naiz jende mota ezberdinarekin hizketan eta haiek herriaz kontatzeko duten guztia entzuteko prest nago. Hortik identifikatuko ditut narrazioarako gaiak.

Zeinekin elkartu zara?

Alkateak eta alkate ordeak asko lagundu didate jendearekin harremanetan jartzen. Inguruko herrietako jendearekin ere bilduko naiz, Tolosa, Aduna edo Asteasu-ko jendearekin. Lanak ez dut zertan hemen nagoela idatzi behar, beraz, bilketa izango da egingo dudana. Irailaren 17ra bitarteko epea dut narrazioa idazteko.

Non egingo duzu egonaldia?

Herrian ostaturik ez dagoenez, emergentzia egoeretarako udalak duen pisuan hartu dut ostatu. Oso leku erosoa eta atsegina da niretzat lanean aritzeko.

Nola baloratzen duzu sorkuntzarako Udalbiltzak eta udalerririk martxan jarritako beka?

Primeran. Normalean sortzaileok korrika eta presaka prestatzen ditugu lanak. Zoritxarrez sormen prozesuari ez zaio hainbesteko garrantzia ematen, gehienetan argudio ekonomikoek eta epeek gain hartzen digutelako. Beka honekin sormen lan bat egin ahal izatea pribilegio bat da, izugarrikoa. Sormen prozesua beste puntu batetik abiatzen da, modu naturalean, eta izugarri eskertzen diot Udalbiltzari nire proposamena aukeratu izana.

Zer egiteko asmoa du Udalbiltzak zuek egindako lanarekin?

Beste 25 artista dabilta Euskal Herri osoko herrietan nirea bezalako egonaldiak egiten. Badira antzerkigileak eta ikus-entzunezko lanak egiten ari direnak. Idazleak dozena bat gara eta guk idatzitako narrazio guztiekin bilduma bat editatuko du Udalbiltzak. 2022an liburu horren aurkezpena egingo dira, eta printzipioz, egonaldia egin dugun herrietara joango gara sortzaileak lana aurkeztera. Iruditzen zait amaiera polita eta biribila ematen zaiola esperientziari.



zozketak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



**Antzerki tailerra
'La Fierrecilla'**

Ekainak 18,
19:00etan, Leidorren

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus



Bortxo sagarmarekin egindako sagardoa

EGUZKITZA SAGARDOTEGIA

ZATOZ GURE SAGARDO NATURALA DASTATZERA

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko:
TEL: 943672613

USABAL AUZOA, 25 TOLOSA

Lizartzako ondare historikoa ezagutuko dute larunbatean

Axurdariora igoko dira goizean eta arratsaldean historiaurreko tailerra antolatu dute; dibertsitate funtzionala dutenentzat egokitutako aulki bat ikusteko aukera izango da

Irati Saizar Artola Lizartza

Lizartzako ondare historikoa ezagutzeko ibilaldi bat egingo dute larunbatean Axurdariora. Akerbeltz espeleologia eta kultur taldeak, Aranzadi zientzia elkar-teak eta Otsabio kirol elkarteak antolatu dute egun osoko egitaraua. Goizean irteera egingo dute mendira eta arratsaldean historiaurreko tailerra izango dute plazan.

Axurdarion dagoen trikuharri bat bisitatuko dute goizean, 09:00etan, Lizartzako plazatik abiatuta. Ondarea ezagutzeko, Aranzadiko arkeologoa den Jesus Tapiaren laguntza izango dute, eta ibilbidean historiaurreaz, floraz, faunaz, mitologiak, haitzuloez, karstaz eta beste hainbat kontuz ariko dira. Arratsaldean, berriz, historiaurrean sakontzeko tailerra eskainiko du Tapiak, 16:30ean, plazan. Besteak beste, historiaurreko materialaz hitz egiteko, sua nola egiten den ezagutzeko eta arkuen bidezko ehizan sakontzeko aukera izango da.

Iñaki Alonso Akerbeltz taldeko kideak azaldu duenez, guztira lau kilometro inguruko joan-etorria egingo dute goizean, «edonork egiteko modukoa». Izango du berezitasun bat mendira egingo duten ibilaldiak: Gasteizko Montes Solidarios elkarteak dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako aulki berezi bat



Axurdarion kokatuta dagoen trikuharria bisitatuko dute larunbatean. ATARIA

ekarriko du eta ikusmen arazoak dituztenentzako norabide barra. «Erakutsi nahi dugu mugikortasun zein ikusmen arazoak dituztenak berdinean joan daitezkeela mendira». Horren erakusle izango dira aulkia eta barra.

Jendeak aulkia nolakoa den ikustea nahi dutela esan du Alonsok, izan ere, Akerbeltz taldeak aulki bat edo bi erosi nahi ditu Tolosalderako: «Behin aulkia eskualdean izanda, inguruko familiek, elkarteek edota norbanakoek erabiltzea nahiko genuke, mendizaletasuna inklusiboa delako».



Horrelako aulki bat eramango du Montes Solidarios elkarteak. ATARIA

Larunbatean, beraz, aulkia nola muntatzen den erakutsiko dute, zein ezaugarri dituen eta nola garraiatu behar den. Momentuz ez dute mugikortasun arazoak dituen inor topatu aulkia proba dezan. Deialdia luzatu dute, eta esan dute norbaitek probatu nahiko balu, harremanetan jartzeko beraiekin.

ARAXESEN INGURUAN LANEAN

Akerbeltz espeleologia eta kultur taldea, Aranzadi elkartearekin batera, Araxes erreka inguruan eta Basabe ibaiadarraren bailaran dauden kobazuloetan lanketa bat egiten ari da. Katalogatuta dauden kobazuloak berriro ere ikusten ari dira, topografia egiten, eta arkeologia aldetik ere ari dira lanean; «ea zerbait aurkitzen dugun», dio Alonsok. Era berean kobazulo berriak ere ari dira aurkitzen.

Esplorazioaz arduratzen da Akerbeltz eta Tapiarkeologoaren laguntza ari dira izaten laneako. Inguru horretan kobazulo asko daudela zehaztu du Alonsok, «arriskutsuak diren asko daude, eta batzuetara iristea ere kosta egiten da, baina badira handiagoak diren batzuk ere».

Esplorazioaz gain, mitologiaren inguruan ere «informazio interesgarri asko» daukatela dio: «Zezengorri gaztetxearen izena nondik dator, esaterako? Otsabion kokatutako istorio bat daukagu», kontatu du.

Hilberriak eta urteurrenak



Joxemanuel Izagirre Mujika "TATI"

Ekainaren 15ean hil zen, 73 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -

Bere gurasoak: Segundo(t) eta Lucia(t); anai-arrebak: Benito(t), Margari(t), M^a Jesus eta Joxemari Arrospide; Leaburuko Arrospide Sendia; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

*"Betirako joan zaigu gure Tati
maite zuen bere eguneroko bizitza
bere lagun artea eta bere baratz"*

Haren arimaren alde, otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezteela, GAUR ASTEAZKENA arratsaldeko ZAZPIETAN, Ibarako SAN BARTOLOME parrokiari, izango den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

IBARRAN, 2021ko ekainaren 16an

OHARRA: Gorputz beila Tolosako ORIA BEILATOKIAN egongo da, GAUR ASTEAZKENA eguerdiko 13:00ak arte.



Joxemanuel Izagirre Mujika "TATI"

- Goian Bego -

*Ibarako herriari eskeinitako urteengatik.
Beti gogoan.*



IBARRAKO
UDALA

IBARRAN, 2021eko Ekainaren 16an.

Ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK

ataria@ataria.eus •

Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera

18:30ak arte hartzen ditugu •

Ostegunetan 11:30ak arte

hartzen ditugu

Tolosaldeak etxeko bandera irabaziz hasi nahi du ETE liga

ETE ligari hasiera emango dion Tolosaldeko II. Bandera izango da jokoan larunbatean, eta Tolosaldea trainerua bandera etxean geratzeko gogoz doa

Imanol Garcia Landa

Larunbatean hasiko dute TAK klubeko Tolosaldea traineruko kideek ETE liga. Iaz bezala, hasiera berezia izango da, etxeko bandera izango baitute jokoan Pasaiaiko badian: Tolosaldeko II. Bandera. Igandean, bigarren jardunaldia izango dute, Getarian. Iaz sekulako liga egin zuten Tolosaldea trainerukoek, hamabi banderetatik bederatzi lortuta. Aurtan, iaz bezala, etxeko bandera irabaziz hasi nahi dute. Tolosaldea traineruko arraunlariak gogo handia dute liga hasteko. «Negua luze egiten da eta udarako desiratzen gaude. Etxeko estropadarekin hasita, are eta gogo handiagoarekin», esan du Malen Oiarzabal arraunlaria. Tolosaldeko I. Bandera iaz ehuneko batzuegatik lortu zuten. «Ondo hasi nahi dugu liga eta ea etxeko bandera lortzen dugun».

Pasa den asteburuan Gipuzkoako Txapelketa izan dute jokoan eta hirugarren egitea lortu zuten, Arraun Lagunak eta Orioren atzetik. Donostian izan zuten estropada, eta aho zapore onarekin itzuli zirela esan du Oiarzabalek: «Brontzezko domina lortu genuen, eta oso pozik geratu ginen onenen artean sartuta». ETE ligako traineruen artean lehenengoak izan ziren, eta Euskotren Ligako bi traineruren aurretik geratu ziren. «Muturra sartu dugu Euskotren Ligako traineruen artean, eta horretan aritzeko gogoz gaude. Beti ere, jakinda non gauden eta zein den gure bidea, baina, beti gora begira».

ETE Ligan iaz lortutakoa errepikatzea «oso zaila» dela dio Tolosaldeako arraunlariak: «Gure bertsio onena ematera joango gara eta erortzen diren banderak eroriko dira eta besteak ez, baina beti Tolosaldea on bat erakustera joango gara; ea non dagoen gure maila». Aurtan hamalau estropada izango dituzte eta liga luzea izango dela azaldu du Oiarzabalek, baina gogo dutela dagoeneko traineru guztiak ilaran jarri eta ikusteko bakoitza non dagoen, zer maila dagoen aurtengoan. «Azkenean, denboral-



Tolosaldea trainerua, San Pedroko jaitsieran, aurtengo denboraldi-aurrean. JOSUZ

di-aurreko estropada hauetan ez dakigu bakoitzak zer ontzi ateratzen duen, bakoitza zer prestaketarekin datorren edo zer helburrekin. Liga hasten denean karta guztiak mahai gainean jartzen dira eta ikusiko dugu Tolosaldea non dagoen eta noraino iritsi ahal dugun».

Asteburu betea izango da, larunbat arratsaldeko estropadaren ondoren, igandean Getarian izango dutelako bigarren jardunaldia, goizez. Bi arraun eremu ezberdinak izango dituzte. Larunbatekoa oso ondo ezagutzen dute Tolosaldea trainerukoek, entrenatzen duten Pasaiaiko badian izango baita. Izan ere, aurtan berriro San Pedro klubaren azpiegitura erabiltzen ari da eskualdeko kluba. Igandekoa, itsasoan izango da.

Lehen asteburua, beraz, traineru bakoitzaren maila non dagoen ikusteko oso baliagarria izango da. «Irabazi nahi duen taldeak eremu guztietan mantendu beharko du goi mailan, eta asteburu osoa izango da balorazio guztiak egiteko». Aurreko denboraldietan itsasoan izaten diren estropadetan maila zertxobait jaitsi egin izan dute. «Itsasoan egiten ari garen lanarekin pozik goaz, eta uste dut maila ona emango dugula», esan du Oiarzabalek.

Aurreko denboraldian liga na-

gusitasunez irabazi ondoren, aurtengoan ere helburu horrekin aterako dira. «Estropadaz estropada guztien bila joatea da asmoa, eta ikusiko dugu. Behintzat dena emango dugu eta ligaren bila joango gara», azaldu du Oiarzabalek. Igoera fasean egoteko lehen bi postuetan bukatu behar da liga, eta horretarako borrokatuko dute Tolosaldea trainerukoek. Guztira, igoera fasean bost traineru lehiatuko dira: ETE

«Liga hasten denean karta guztiak mahai gainean jartzen dira eta Tolosaldea non dagoen ikusiko dugu»

MALEN OIARZABAL
ARRAUNLARIA

ligako lehen biak, Euskotren Ligan azken postuan geratzen dena, eta Galiziako bi traineru onenak. Denboraldiko beste hirtzordu garrantzitsua Kontxako Bandera da. Iaz ohorezko txandant sartu zen Tolosaldea, eta oroitzapen politak ditu Oiarzabalek: «Ohorezko txandan sartzea guretzako itzela izan zen. Ea aurtan ere gerra pixka bat emateko gai garen».

BIZKAR HEZURRARI EUTSIZ

Taldean hainbat aldaketa izan dira, baina bizkar hezur bera mantentzen da. Myriam Aizpu-

rua eta Janire Izagirre bueltatu egin dira taldera, eta Enara Villena Hernanitik eta Itziar Rezola Hondarribia trainerutik etorri dira. Bestalde, Eider Zubeldia, Izaskun Sarasola eta Laiene Izagirrek taldea utzi egin dute. «Aldaketa txiki batzuk daude, baina esentzia mantendu egiten da», esan du Oiarzabalek. «Jarraipen urte bat izan da, bai entrenatzailearen aldetik eta baita arraunlariaren aldetik ere, eta bide berdinetik goaz».

Patxi Frances entrenatzailearen hirugarren urtea da klubean, eta horrek bere garrantzia du. «Trainerua uretara bota genduenetik bagenekien oso talde gaztea, etorkizuneko taldea ginela», esan du Oiarzabalek. «Bagenekien norabait iritsi nahi bagenu, bai ala bai urtez urte bizkar hezur hori mantentzen joan behar genuela». Hori lortzen ari direla eta horregatik oso pozik daudela gaineratu du arraunlariak: «Taldea gero eta helduagoa da, talde bezala gero eta gehiago gara, eta Patxi bezalako entrenatzaile batek hirugarren urtea gurekin egitea garrantzitsua da».

Pasa den urteko denboraldia arraroa izan zen prestaketaren aldetik, konfinamenduarengatik erditik moztu baitzen. Aurtengoan «betiko modura itzultzeko bide bat» izan dela esan du Oiarzabalek. «Negu guztia ure-

TOLOSALDEA TRAINERUA

Itsaso Aizpurua. Zizurkil.
Itxaso Aranburu. Tolosa.
Naroa Becerril. Tolosa.
Ane Zelaia. Belauntza.
Ane Egues. Elduain.
Myriam Aizpurua. Irura.
Irati Hernandez. Tolosa.
Janire Izagirre. Tolosa.
Naroa Leonet. Tolosa.
Irati Lizeaga. Tolosa.
Malen Oiarzabal. Tolosa.
Arene Portuarrume. Aia.
Eider Barba. Hernani.
Estibaliz Seguro. Tolosa.
Aiora Sorozabal. Oresa.
Maddi Urdapilleta. Villabona.
Uxue Urkia. Idiazabal.
Mireia Vicente. Anoeta.
Enara Villena. Hernani.
Andrea Zumeta. Tolosa.
Uxue Zuriarrain. Amezketeta.
Itziar Rezola. Oiartzun.
Patxi Frances. Entrenatzailea.
Miguel Fresneda. Entrenatzaile laguntzailea.

ETE LIGAKO EGUTEGIA

Ekainak 19. Tolosaldeko II. Bandera. Pasa San Pedro.
Ekainak 20. Andoni Galarragaren oroimen estropada. Getaria.
Ekainak 27. VIII. Pasaiaiko Bandera. Pasa Donibane.
Uztailak 3. IV. Donibane Lohizuneko estropada. Donibane Lohizune.
Uztailak 4. Sestaoko Udalen III. Bandera. Portugalete.
Uztailak 10. Donostiara. Donostia.
Uztailak 11. Isuntza. Lekeitio.
Uztailak 17. Zumaia. Zumaia.
Abuztuak 1. III. Erretereria Hiria Emakumeen Traineru Elkarte Bandera. Orereta.
Abuztuak 7. XXXVII. Ondarroako Bandera. Ondarroa.
Abuztuak 14. Zarautz Arraun Elkarteen Emakumeen I. Bandera. Zarautz.
Abuztuak 15. ETE-Ciudad Castro Urdiales. Castro Urdiales.
Abuztuak 22. I. Ane Aizpuru Basterretxe Oroimenezkoa. Bilbo.
Abuztuak 28. XXXIV. Erandioko Bandera. Erandio.

tan egin dugu, eta horregatik pozik gaude, baina ez da guztiz itzuli normaltasuna. Bat konfinatzen zen, gero bestea, eta neurri guztiak hartzen ditugu baina horrela da egoera. Zainduz eta neurriak hartuz jarraituko dugu».

Oraingoz egin diren denboraldi-aurreko estropadetan ikusle goa puntu bateraino iritsi ahal izan da. Traineruen eremuan arraunlariak bakarrik izan dira. Ikusi beharko da udan zehar murriketa horiek arintzen diren.



ASTEAZKENA, 2021EKO EKAINAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletze
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
galtzaundi, Txolarrre, berria, BERTAKO HEDABIDEAK, Tolosaldeko gizarte eragileak



SARIA LIZARRALDERENTZAT

Pello Lizarralde jaso du 2020ko 111 Akademia Saria, Argiantzaliburuagatik. Amasako Hika txakolindegian egin berri dute sari banaketa ekitaldia. Lizarraldek —erdian— poza adierazi zuen sariaren atzean irakurle zabal bat dagoela ikusita. «Irakurleak ez du beti arrazoi, baina irakurle bakoitzak bere arrazoiak ditu. Gauza bat argi dut: nik ez dakit benetan zer idatzi dudana, harik eta nik idatzi dudana hori irakurle batek irakurri arte. Horrekin aski dela uste dut». NORA URBIZU

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberrak...

www.ataria.eus • 107.6 fm •

ASTEAZKENA 16

AGENDA

Deialdiak

Berrobi. Iker Karrerari buruzko *Bi-dea* iparliburuaren aurkezpena, 19:00etan, solastokin.
Tolosa. Death Cafe heriotzari buruz hitz egiteko topaketa, Amaratzen, 19:00etan.
Tolosa. *Charulata. La esposa solitaria*, Leidorren, 19:00etan.
Zizurkil. *Turistreatzen* kale antzerkia, Joxe Arregi plazan, 19:30ean.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean (Kyxo eta Jokin Erkoreka)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Bi urte, bi hitzetan (Beatriz Unzué)
22:15. Tenpora taldearen kontzertua)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina Asier Imazek gidatuta.
15:00. Desafioa. Herri kirolak Joxe Angel Sarasolarekin.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irrati artean eginiko magazina.
20:00. (H)ari naizela. Bertolaritza, Imanol Artola Felix-ekin.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. J.M. Sanchez. Kale Berria, 34. 943 69 11 30.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ezegonkorra. Goizean hodeien presentzia handiagoa izango da. Hala ere, ateri eutsiko dio. Arratsaldean bero-hodeiak garatu eta ekaitzeta-rako joera nabarmena hartuko du. Tarteka zaparrada handiak botako ditu eta ez da baztertzen kazkabarra botatzea. Tenperatura maximoak 27-29 graduan kokatuko dira.

Bihar. Giro kaxkarra. Egun osoan zerua oso hodeitsu agertuko da eta hodeiek euria ere utziko dute. Euria egun osoan egingo du, eta egunaren bigarren zatian ekaitzak jo eta zaparrada gogorak bota ditzake, kazkabarra eta haize bolada gogorak baztertu gabe. Tenperatura maximoak 20-22 graduan geratuko dira.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritziaren erantzukizunik.



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA
2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484